

Enpresen berrikuntza eta
I+G arloko politiken eta
programen joerak

Kasu praktikoa:

Portugal



 **innobasque**

Berrikuntzaren Euskal Agentzia
Agencia Vasca de la Innovación



Índice

Enpresen berrikuntza eta I+G arloko politiken eta programen joerak

KASU PRAKTIKOA:

Portugal

4

SARRERA: AZTERLANAREN HELBURUA

5

1. PORTUGALEKO KASUAREN AZTERKETA

1.1. Testuingurua

1.1.1. Egitura ekonomikoa eta berrikuntzaren emaitzak

1.1.2. Berrikuntza-sistemaren indarguneak eta ahulguneak

1.1.3. ETE-en berrikuntzaren bilakaera

1.2. ETE-en berrikuntzari laguntzeko jarraitutako ikuspegia

1.2.1. Hasierako egoera

1.2.2. Bilakaeraren giltzarriak

1.3. Aurre egin beharreko erronkak

1.4. Ikasitako lezioak

13

2. BIBLIOGRAFIA

2.1. Dokumentuen zerrenda

2.2. Elkarrizketen zerrenda

14

3. ERANSKINAK

3.1. Programa nagusien laburpena



Índice

TAULAK


- 5 **1. taula.** Egitura ekonomikoaren eta berrikuntzako emaitzen laburpena.
- 7 **2. taula.** ETE berritzaileen ehunekoa, berrikuntza-motaren arabera (%; 2018)

IRUDIAK

- 6 **1. irudia.** Enpresa-sektoreak eginiko I+G arloko barne-gastua BPGd-ren gainean (%; 2008-2019)
- 7 **2. irudia.** ETE berritzaileen ehunekoaren bilakaera, berrikuntza-motaren arabera
- 8 **3. irudia.** Produktu berrietatik edo nabarmen hobetutako produktuetatik eratorritako diru-sarreraren ehunekoa (%; 2010-2018)

Enpresen berrikuntza eta
I+G arloko politiken eta
programen joerak

KASU PRAKTIKOA:
Portugal





Aurkibidea

Enpresen berrikuntza eta I+G arloko politiken eta programen joerak

KASU PRAKTIKOA:

Portugal

56

SARRERA: AZTERLANAREN HELBURUA

57

1. PORTUGALEKO KASUAREN AZTERKETA

1.1. Testuingurua

1.1.1. Egitura ekonomikoa eta berrikuntzaren emaitzak

1.1.2. Berrikuntza-sistemaren indarguneak eta ahulguneak

1.1.3. ETE-en berrikuntzaren bilakaera

1.2. ETE-en berrikuntzari laguntzeko jarraitutako ikuspegia

1.2.1. Hasierako egoera

1.2.2. Bilakaeraren giltzarriak

1.3. .Aurre egin beharreko erronkak

1.4. Ikasitako lezioak

65

2. BIBLIOGRAFIA

2.1. Dokumentuen zerrenda

2.2. Elkarrizketen zerrenda

66

3. ERANSKINAK

3.1. Programa nagusien laburpena

TAULAK

- 57 **1. taula.** Egitura ekonomikoaren eta berrikuntzako emaitzen laburpena.
- 59 **2. taula.** ETE berritzaileen ehunekoak, berrikuntza-motaren arabera (%; 2018)

IRUDIAK

- 58 **1. irudia.** Enpresa-sektoreak eginiko I+G arloko barne-gastua BPGd-ren gainean (%; 2008-2019)
- 59 **2. irudia.** ETE berritzaileen ehunekoaren bilakaera, berrikuntza-motaren arabera
- 60 **3. irudia.** Produktu berrietatik edo nabarmen hobetutako produktuetatik eratorritako diru-sarreraren ehunekoak (%; 2010-2018)



SARRERA: Azterlanaren helburua

Berriki onartu da Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Plana (ZTBP) Euskadi 2030, eta bertan ezartzen denaren arabera, datozen urteetan Euskadik aurre egin beharko dien erronka nagusietako bi izango dira berritzen duten ETE-en kopurua eta I+G arloko enpresa-inbertsioen kopurua handitzea.

Hori dela eta, Innobasquek kasu desberdinen azterlan bat egin du, **enpresen berrikuntza eta I+G arloei laguntzeko nazioarteko politikei buruzko lezioak ateratzeko asmoz, Euskadin etorkizuneko erabakien inspirazio-iturri izan daitezten**. Halaber, [2019ko Innobasque Prospektiba Txostenean](#) identifikatu ziren berrikuntza-politiketako joera nagusietako batzuk zehaztea du xede.

Azterlanak **hiru kasu** praktiko aztertzen ditu (Portugal, Austria eta Finlandia), berrikuntzan errendimendua modu esanguratsuan hobetzeagatik nabarmentzen direnak. Zehazki, Portugal nabarmentzen da ETE berritzaileen ehunekoa handitu izanagatik, eta Austria eta Finlandia, azken urteetan enpresen I+G arloko inbertsioa handitzeagatik.

Azterlanak sortzen ari diren eta emaitza onenak lortzen ari diren enpresen I+G eta berrikuntzaren arloko estrategia eta sustapen-estrategia berrietako batzuk aztertzen ditu. Laguntza-politiken egiturazko alderdiak ditu ardatz; hori dela eta, ez dira aztertzen gai-joerak, hala nola digitalizazioa, edo egoeraren arabera koagoak diren alderdiak, COVID-19a kasurako.

Dokumentu honetan, **Portugalen** kasua aztertzen da. Herrialdeak 2020ra arte nabarmen hobetu zuen berrikuntzako errendimendua Europar Batasuneko gainerako estatu kideen aldean, eta Europako Batzordeak berrikuntza-maila altuko herrialdeztat hartu zuen lehenengoz 2020an. Bilakaera positibo hori ETE berritzaileen ehunekoa hobetzearen ondorioa izan zen. Nabarmentzekoa da Portugalak produktu edo prozesuan berritzaileak ziren ETE-en ehunekoa areagotzea lortzea % 44,2tik 2010ean % 56,0ra 2016an, krisi ekonomiko gogor bat jasan ondoren eta troikaren tutoretzapean egon ondoren 2010 eta 2014 artean; aldiz, aldi berean, ehuneko hori geratuta egon zen % 34 inguruan Europar Batasunean.

Nolanahi ere, Portugalen errendimendu berritzailea nabarmen erori da 2021ean, eta Europako Batzordeak berrikuntza-maila moderatuko herrialdeztat sailkatu du. Hori, hain zuzen ere, "berrikuntza-inkestaren datuak erabiltzen dituzten adierazleetan errendimendua murrizteari" zor zaio (EB, 2021). Zehazki, adierazle hauek dira: enpresa-gastua jarduera berritzaileetan (I+G barne) enplegatutako pertsona bakoitzeko, beste enpresa batzuekin lankidetzan aritzen diren ETE berritzaileen ehunekoa, enpresa berritzaileetako enplegua eta produktuan eta negozio-prozesuan berritzen duten ETE-en ehunekoa.

Aztertzekeo kasuaren xedea da **identifikatzea zein arrazoik ahalbidetu zion Portugali enpresa txiki eta berritzaileen ehunekoa areagotzea eta ulertzea berrikuntza-politikak zer ekarpen egin zion bilakaera horri. Halaber, berriki izandako beherakadaren arrazoiak zein diren ulertu nahi da.**



1. PORTUGALEKO KASUAREN AZTERKETA

1.1. Testuingurua

1.1.1. Egitura ekonomikoa eta berrikuntzaren emaitzak

Portugalgo Errepublika da Europar Batasuna osatzen duten hogeita zazpi estatu kideetako bat. Hamar milioitik gora biztanle ditu. Erosahalmen parekidean per capita BPGd handitu egin da azken urteetan, nahiz eta handitu egin den arrakala EB-27ko batezbestekoari dagokionez.

2019an industria balio erantsi gordinaren (BEGd) % 17,5 izan zen. 2010ean izandako % 16,8a baino pisu handiagoa da, baina Europar Batasuneko batezbestekoaren bi portzentajezko puntu azpitik dago.

Portugalgo ekonomiaren hazkundearen bektore nagusietako bat kanpo-merkataritza izan da. Ondasunen eta zerbitzuen esportazioak BPGd-ren % 30,1 ziren 2010ean; 2019an, berriz, % 43,5 izan ziren.

Europako gainerako ekonomietan bezala, enpresa-sarea ETE-ek osatzen dute nagusiki (% 99,9 2018an), nahiz eta kopuru hori handiena den, Greziakoaren atzetik. Mikroenpresen (hamar langile baino gutxiago dituzten enpresak) presentzia handiagoa izateari zor zaio hori; 2018an % 95,2koa izan zen.

Berrikuntzari dagokionez, Portugal nabarmendu da 2010–2016 artean ETE-en berrikuntza hobetu delako, batez ere produktuan edo prozesuan. Aldi horretan, produktu edo prozesuan berritu duten ETE-en ehunekoa % 44,2tik % 56,0ra igo zen, eta Europar Batasuneko maila gorenera iritsi zen. Nolanahi ere, eskuragarri dauden azken datu estatistikoaren arabera (2018koak)¹, ETE berritzaileen ehunekoa % 27,2ra jaitsi zen produktuetan berrikuntzak egin zituztenen artean, eta % 31,6ra negozio-prozesuren batean berrikuntzak egin zituztenetan. Bi kasuetan, balioak EB-27ko batezbestekoaren azpitik egon ziren, % 28,7koa eta % 40,0koa izan baitzen, hurrenez hurren.

I+G arloko inbertsioari dagokionez, BPGd-rekiko bolumenak txikia izaten jarraitzen du (% 1,40 2019an) EB-27ko batezbestekoaren aldean (% 2,20 2019an), nahiz eta azken urteetan termino absolutuetan hobera egin duen.

Berrikuntza-sailkapenei dagokienez, Portugalen egoera hobetu ezin zen 2020ra arte Berrikuntzaren Adierazleen Europako Taulan (EIS - European Innovation Scoreboard); azken horrek berrikuntza-maila altuko herrialdeztat hartu zuen 2020an lehenengoz. Hala ere, bere errendimendu berritzailea murriztu egin da 2021eko azken edizioan, eta berriz ere berrikuntza-maila ertaineko herrialdeztat hartu du. Aldiz, Berrikuntzaren Indize Globalak (GII - Global Innovation Index) antzeko posizioetan kokatzen jarraitzen du; zehazki, 2020an, aztertutako 131 ekonomietatik 31. postuan.

1. taula. Egitura ekonomikoaren eta berrikuntzako emaitzen laburpena.

Adierazlea	Unitatea	Datuak			Eboluzioa
		2017	2018	2019	
Biztanleria	Kopurua	10.309.573	10.291.027	10.276.617	-% 0,3
Per capita BPGd	EP	22.692	23.684	24.766	+% 9,1
Industriaren BEGd-ren ehunekoa	%	18,0	18,1	17,5	-0,5pp
ETE-en ehunekoa (0-249 enplegu)	%	99,9	99,9	E/E	=
Mikroenpresen ehunekoa (0-9 enplegu)	%	95,3	95,2	E/E	-0,09pp
I+Gko barne-gastua BPGd-ren gainean	%	1,32	1,35	1,40	+0,08pp
Produktuetan berritzen duten ETEak	%	E/E	27,2	E/E	E/A
Negozio-prozesuetan berritzen duten ETEak	%	E/E	31,6	E/E	E/A
European Innovation Scoreboard (EIS) sailkapeneko postua		13° (2019)	12° (2020)	19° (2021)	▼
Global Innovation Index (GII) sailkapeneko postua		32° (2018)	32° (2019)	31° (2020)	▲

Iturria: Eurostat; Europako Batzordea, European Innovation Scoreboard; Cornelleko Unibertsitatea, INSEAD eta Jabetza Intelektualaren Mundu Erakundea –WIPO–, Global Innovation Index.




1.1.2. Berrikuntza-sistemaren indarguneak eta ahulguneak

EIS 2021 txostenak berrikuntza-maila ertaineko herrialdeztat hartu du berriro Portugal, 2020ko edizioan berrikuntza-maila handiko herrialdeztat hartu ondoren. Herrialdeak sei postu aurreratu zituen 2016 eta 2020 artean, 2019ko edizioan puntuazio orokorra nabarmen hobetu ondoren. 2021ean, berriz, zazpi postu galdu ditu aurreko urtearen aldean.

Herrialdeak emaitza onenak lortu ditu atzerriko doktoregaiak izatean, banda zabalaren sartzean eta zientziaren eta teknologiaren sektoreko lan-mugikortasunean. Ahulgune nagusien artean, azpimarratzekoak dira hauek: ingurumen-jasangarritasuna, berrikuntzako enpresa-inbertsioak (I+G barne) eta berrikuntzak salmentetan eta enpleguan duen inpaktua. Aurreko edizioetan, Portugalen indargune nagusia ETE berritzaileen kategorian zegoen; 2021ean, ordea, EBko batez besteko balioen azpitik dago. Indargune horrek kontrastea egiten zuen enpresek I+G arloan egindako inbertsio txikiarekin edo berrikuntzak salmentetan izandako inpaktu eskasekin. Portugalen goi-mailako hezkuntza, eta ikerketa eta berrikuntza aztertu zituen ELGaren 2019ko ikerketaren arabera, Portugalgo enpresa-sareak ez du ezagutza eta teknologia "xurgatzeko gaitasun nahikoa". Enpresek gaitasun teknologiko eskasa izateaz gainera, kudeaketa-gaitasunak hobetzeko tarte ere nabarmentzen zen (JRC, 2018).

1. irudia. Enpresa-sektoreak eginiko I+G arloko barne-gastua BPGd-ren gainean (%; 2008-2019)



Iturria: Eurostat.

Bestalde, ELGaren Country Compass 2020 baliabideak azpimarratu du beharrezkoa dela hezkuntza-, ikerketa- eta berrikuntza-jardueren arteko integrazioa hobetzea goi-mailako irakaskuntzako eta ikerketako erakundeetan. Gainera, hezkuntzako eta ikerketako inbertsioen sinergia eta inpaktu handiagoak tokian-tokian eta globalki sustatzeko gaitasuna aipatu du, baita harreman-esparru instituzionalak eta nazioartekoak indartzeko beharra ere. Halaber, "zientzia-, teknologia- eta berrikuntza-sistemaren gobernantza erronka eta aukera nagusietako bat" dela azpimarratu du².




1.1.3. ETE-en berrikuntzaren bilakaera

Azken urteotan, Portugalgo ETEak asko hazi dira enpleguari eta balio erantsiari dagokienez. Zehatz-mehatz, 2014 eta 2018 artean, ETE-etako enplegua % 15,2 hazi zen, eta balio erantsia, berriz, % 27,0. Nolanahi ere, hazkundera moteldu egin zen 2017-2018an; enplegua % 3,4 eta balio erantsia % 4,6 soilik hazi baitziren.

Berrikuntza duen errendimenduari dagokionez, 2010. eta 2016. urteen artean nabarmen handitu zen produktuan edo prozesuan berrikuntzaren bat sartu zuten ETE-en ehunekoak, eta hogeita zazpi estatu kideen artean lehen postuan kokatu zen. Hain zuzen, EB-27ko batezbestekoarekiko diferentziala handitu zuen. Zehazki, 2016. urtean, 10 langile edo gehiago zituzten Portugalgo ETE-en % 56,0k berri egin zuten produktuan edo prozesuan, EB-27ren % 33,8ren aldean. Marketineko edo antolakuntzako berrikuntzari dagokionez, Portugalak handitu egin zuen bere diferentziala Europako Erkidegoko batezbestekoarekiko, nahiz eta arlo horretan ETE berritzaileen ehunekoak 2010eko maila berean eutsi zion (% 47,4).

Bi berrikuntza-mota horietan ikusten da ETE berritzaileen ehunekoak murriztu egin dela zorraren krisiaren urteetan. Krisi horrek gogor eragin zion Portugal; izan ere, erreskatea eskatu eta troikaren tutoretzapean jarri behar izan zuen 2010 eta 2014 artean. Alabaina, susperraldia hastean, hobekuntza EB-27koa baino handiagoa izan zen.

2. irudia. ETE berritzaileen ehunekoaren bilakaera, berrikuntza-motaren arabera.



Iturria: Berrikuntzaren Adierazleen Europako Taula (EIS): datu-basea.

Bilakaera positiboa izan arren, Osloko Eskuliburuaren 2018ko azken edizioko adierazle berriak aztertuz gero, 2018ko balioak jasotzen dituztenak, ikusten da serie historikoa haustetik harago, ETE berritzaileen ehunekoak atzerakada esanguratsua jasan duela, eta Europako Erkidegoko batezbestekoaren azpitik dagoela, bereziki negozio-prozesuren batean berritzen duten ETE-en artean. Horrek guztiak azaltzen du, hein handian, EIS 2021 txostenean Portugalen posizioa okertu izana.

2. taula. ETE berritzaileen ehunekoak, berrikuntza-motaren arabera (%; 2018).


	EB-27	Portugal
ETE berritzaileak	% 45,5	% 35,3
Produktuetan berritzen duten ETEak	% 28,7	% 27,2
Negozio-prozesuetan berritzen duten ETEak	% 40,0	% 31,6

Iturria: Eurostat.



EIS txostenaren edizio guztietan, baita berrikuntzaren bat sartu zuten ETE asko izateagatik Portugal nabarmentzen zen edizioetan ere, berrikuntzen inpaktuak xumeak ziren; izan ere, hori da oraindik ere herrialdearen ahulguneetako bat EIS 2021 txostenean. Adibidez, produktu berriekin edo nabarmen hobetutako produktuekin lotutako fakturazioaren ehunekoa EB-27ko batezbestekotik beherakoa izan zen 2018an, eta, gainera, zifra horrek okerrera egin zuen 2010. urtearekin alderatuta, nahiz eta nabarmen hobea izan zen susperraldi ekonomikoaren lehen urteen aldean. Era berean, nahiz eta denbora-desfasea dagoen enpresa-berrikuntzaren eta ekonomiaren egiturazko aldaketan artean, "Portugalgo ekonomiak teknologia-maila baxuko edo ertain-baxuko sektoreetan ainguratuta jarraitzen du, eta egiturazko aldaketa motela izaten ari da" (Europako Batzordea, 2020).

3. irudia. Produktu berrietatik edo nabarmen hobetutako produktuetatik eratorritako diru-sarreraren ehunekoa (%; 2010-2018).



Fuente: Eustat.

Paradoxa hori enpresek sartutako berrikuntzak inkrementalak izateari eta zientzian eta teknologian oinarritutakoak ez izateari zor dakioke (ELGA, 2019), batez ere kontuan hartzen bada Portugalen ahultasuna duela enpresen I+G arloko inbertsioan eta nazioarteko patenteen eskaeretan. Hala ere, Portugalgo enpresek beren lehiakortasun-maila hobetu dute nazioarteko merkatuetan, eta ondasunen eta zerbitzuen esportazioak 2010ean BPGd-ren % 30,1 izatetik 2019an % 43,5 izatera igaro ziren. Era berean, enpresa esportatzaileen kopurua % 7,4 hazi zen 2012tik 2018ra bitartean.



1.2. ETE-en berrikuntzari laguntzeko jarraitutako ikuspegia

1.2.1. Hasierako egoera

Portugalek bi barne-zailtasun ekonomiko desberdin izan ditu, biak ala biak larriak: krisi subiranoa eta euroaren krisiaren inpaktuak. Ondorioz, barne-merkatua murriztu egin zen Portugalgo enpresa askorentzat. Gainera, beste aldagai exogeno batzuek, hala nola Txinak munduko merkatuan proaktibitate handiagoa izateak, erronka berriak sortu zizkieten Portugalgo enpresei. Hori dela eta, Portugalek ondorioztatu zuen **berrikuntzan eta teknologian inbertsioak handitu** behar zituela. 2010. urtea inflexio-puntua izan zen. Portugal finantza-egoera oso kaskarrean zegoen, eta **enpresak nazioartekotu** egin behar izan zituen; hori zeregin zaila zela ulertu zen orduan³.

Horretarako, digitalizazioa eta berrikuntza funtsezkoak ziren. Gobernuak **hainbat beharrian identifikatu zituen enpresa-sektore desberdinetan**, jarduerak sektoreen heldutasun-mailaren arabera egokitzeko. Horrez gainera, erabakigarria zen **azkar jardutea**. Horregatik, gobernuak hasierako programa bat diseinatu zuen, **erakustaldian eta mobilizazioan** oinarrituta. Programaren helburua zen erakustea, batez ere ETE-ei, nola hobetu zezaketen produktibitatea digitalizazioari esker. Hori goranzko ikuspegi batetik garatu zen (bottom-up), eta hainbat stakeholderrek parte hartu zuten.

Ekonomia Ministerioak diseinatu zuen, eta COMPETE ministerioen eta erakunde publikoen arteko koordinazio handiagoa ahalbidetu zuen, jarduera horiei laguntzeko. Hori horrela, 2007-2013 aldian, honako hauek izan zituen ardatz: Portugalgo enpresetan I+G zentroak sortzea sustatzea; enpresetarako programak bultzatzea; produkzio-sektorearen gaitasunak hobetzea; espezializazio-zorroak eta negozio-ereduak eguneratzea; enpresen nazioarteko orientazioa akuilatzea; eta ezagutzan eta berrikuntzetan oinarritutako ekonomia sustatzea, garapen zientifiko eta teknologikoak suspertuz eta enpresa-espirtua sustatuz.

COTEC Portugal, hedapen teknologikoan eta enpresa-lankidetzan aurrera egiteko Portugalgo enpresen elkarte nagusia, erakunde liderra izan zen COMPETE programa sektore pribatuaren beharrietara egokitzeko prozesuan. Elkarrekin **enpresen heldutasun-egoera berrikusi zuen COMPETE programan, eta hainbat heldutasun-maila zehaztu zituen enpresa pribatuen beharriari hobeto heltzeko.** Prozesu horrek sektore pribatuak politika publikoen formulazioan zuen parte-hartzea hobetu zuen. Berrikuntzarako eta lehiakortasunerako programak gauzatzean parte hartu zuten erakunde guztiek (adibidez, IAPMEI, ETE-en berrikuntzarako eta lehiakortasunerako agentziak) sektore pribatuaren ikuspegiak integratu ahal izan zituzten.

Europar Batasunaren 2014-2020 aldiko urte anitzeko finantza-esparru berriari begira, **Portugal 2020** estrategia prestatu zen, ekonomiaren egiturazko eraldaketa bultzatzeko, esportazio-sektoreetara bideratuta. Hauek dira gastu-arlo nagusiak, besteak beste: manufaktura-enpresak nazioartekotzen laguntzea, berrikuntza, eta enpresen eta komunitate zientifikoaren arteko loturak indartzea. **COMPETE 2020** Lehiakortasun eta Nazioartekotze Programa Operatiboak 2014-2020 aldirako **Europako funtsak** mobilizatzen ditu Portugal 2020 strategiako "Lehiakortasuna eta Nazioartekotzea" arloan. Programa horrek **berrikuntza sustatzeko tresna politikoen aukera zabala** du.



1.2.2. Bilakaeraren giltzarriak

Euroaren krisiak eragindako **barne-merkatua jaitsiera** inflexio-puntua izan zen ETE-en berrikuntza-jardueran. Esportatzeko beharraren ondorioz, enpresek beren lehiakortasun-maila handitu behar izan zuten, baita nazioarteko merkatuetan Txinaren presioa jasaten zuten enpresa espportatzaileen artean ere Horretarako, **digitalizazioa eta berrikuntza bektore gakoak izan ziren**. Horren jakitun izanik, Portugalgo Gobernuak hainbat politika jarri zituen abian, eta, enpresen beharrezkoak behar bezala asetzeko asmoz, **politika horiek diseinatzeko goranzko ikuspegia (bottom-up) hartu zuen lehenengoz, hainbat stakeholder oinarri hartuta** (adibidez, COTEC Portugal), xede-enpresak beren heldutasun-mailaren arabera sailkatzeko eta segmentatzeko.

Hasierako heldutasun-faseetan enpresetarako abian jarritako tresnetako bat **baleak edo bonuak** izan ziren. **Digitalizazioaren bitartez berrikuntza-jarduerak egiteko gaitasunak hobetzeko** asmoz, enpresei 7.500 euroko bonuak eman zitzaizkien, industria adimendunen garapenarekin eta digitalizazioarekin zerikusia zuten esperimenduak egiteko. Tresna horrek bi ondorio positibo izan zituen: hasteko, programak digitalizazioari eta berrikuntzari buruzko kontzientziazioa areagotu zuen, eta enpresak berritzeko barnean jardutera animatu zituen; eta, bigarren, negozio-ereduan hobekuntzak sartzen lagundu zuen; izan ere, programaren helburua eraginkortasuna hobetzea ez ezik, egiturazko eraldaketa-maila jakin bat lortzea ere bazen. Xedea zen bonuek espportazioak, errentagarritasuna eta lanpostuak areagotzea. Enpresak kanpora zabaltzea sustatzeko bonuaren elementu bereizgarrietako bat espportazio-diziplina eta hazkunde-diziplina izan zen. Balea jasotzen zuten enpresek konpromisoa hartu behar zuten espportazioen, hazkundearen eta lanpostuen inguruan hartu beharreko helburuak betetzeko.

Bestalde, heldutasun-maila hobetzearekin bat, **ETE-en kudeaketa-trebetasunak** sustatu ziren, **"berrikuntzan estrategikoki pentsatzeko gaitasuna" bultzatzeko**. Tresna espezifikoak sustatu ziren, hala nola Ekintza Kolektiboek Laguntzeko Sistema (SIAC) edo Portugal Social Innovation. Alde batetik, SIAC sistemak, COMPETE⁴ 3,4 milioi euroekin finantzatu eta COTEC Portugal elkarteak % 98an gauzatu, jarduera-sorta zabala du (tailerrak, online ikastaroak, networking-ekitaldiak, etab.), eta "berdinen arteko ikaskuntza-prozesua" ere barne hartzen du. Prozesu hori enpresen ebaluazio konparatiboa egitean datza, jardunbide egokiak identifikatzeko eta horiek zabaltzeko ezagutza trukatzuz. Beste alde batetik, Portugal Social Innovation ekimenak, Portugal 2020 strategiaren esparruan 150 milioi euroko zuzkidurarekin finantzatuak, bere tresnen artean du Gaitasunak Garatzeko Programa, kudeaketa-trebetasunak garatzea finantzatzen duena, prestakuntza-beharrizanak 50.000 eurora⁴ arte estaliz.



1.3. Aurre egin beharreko erronkak

Portugalek nabarmen hobetu ditu berrikuntza-gaitasunak, eta azken urteotan izan duen arrakasta ekonomikoa, neurri handi batean, bertako enpresek susperraldiaren lehenengo urteetan egindako berrikuntzei esker azal daiteke (ELGA, 2019). Nolanahi ere, berrikuntza horiek inkrementalak izan ziren eta ez zeuden I+G arloan oinarrituta (ibid.); izan ere, enpresen I+G arloko inbertsioak Europako Erkidegoko batezbestekotik urrun jarraitzen du. Halaber, berrikuntza horien emaitzak eta inpaktuak EBko batezbestekoaren azpitik egoten jarraitzen dute (ibid.), eta ia ez da aurrerapenik izan herrialdearen egitura ekonomikoaren sofistikazioan eta teknologia-maila altuko manufaktura-industriaren eta zerbitzu aurreratuen pisu ekonomikoan (Europako Batzordea, 2020).

Hori guztia administrazioek I+G arloan oinarritutako berrikuntzari eta teknologia-maila baxuko ETE-en modernizazioari laguntzeko egin dituen ahaleginak gorabehera izan da (ELGA, 2019). Ahalegin nagusien artean, azpimarratzekoak dira hauek: enpresen eta ikerketa-munduaren arteko harremanak sustatzeko 35 lankidetzeta-laborategi (CoLAB)⁵ sortzea orain arte; I+G arlorako pizgarri fiskalak izatea (adibidez, SIFIDE); edo FINOVA funtsa sortzea, oinarri teknologikoko enpresen hazkundera sustatzeko, business angels eta arrisku-kapitaleko funtsei lagunduz.

ELGaren eta Europako Batzordearen gomendio politiko nagusiak berrikuntza Portugalgo egitura ekonomikoaren modernizatzea bideratzeko dira. Hain zuzen, hauek dira gomendio politiko nagusiak:

- **Eskualdeetako berrikuntza-plataformak** ezartzea, ETE-ek berrikuntza-gaitasunetan aurrera egiteko baliabide kritikoak errazago eskura ditzaten.
- **Unibertsitatei eta unibertsitate politeknikoei tokiko garapenerako laguntza ematen** jarraitzea, orientazio praktikoa duen ezagutza baliatuz.
- **Urte anitzeko finantzaketa publikoa** bermatzea bitarteko erakundeei, haien sareak, azpiegiturak eta laguntza-zerbitzuak mantentzeko eta zabaltzeko.
- **Transferentzia-zerbitzuak ematen dituzten erakundeak** masa kritikoetara iristeko ezagutza eta baliabideak parteka ditzaten sustatzea.
- **Espezializazio adimenduneko estrategiak** ezartzean **estatuaren eta eskualdeen arteko koordinazioa** hobetzea.

1.4. Ikasitako lezioak

Portugalek jakin du **jasotako nazioarteko finantzaketa baliatzen**, bai Finantza Egonkortasunerako Europako Mekanismoaren funtsetatik zetozenak, bai Europako Egiturazko Funtsetatik eta Inbertsio Funtsetatik datozenak, **berrikuntza epe laburrean hazkunde ekonomikoaren bektore bihurtzeko, enpresek merkatu globaletan lehiakortasun handiagoa izateari esker.**

Portugalgo enpresek beren eskaintza hobetu behar zuten nazioartean lehiakorra izan zedin eta, horrela, barne-merkatuaren jaitsierari eta Txinako lehiari aurre egin ziezaion; horren aurrean, **berrikuntza-politikak katalizatzaile gisa jardun zuen**, eta ETE berritzaileen ehunekoa azkar hazi zen.

Jarraian, hori azaltzen duten ikasgaiak azaltzen dira:

- **Funtsezkoa da helburu politikoen eta baliabideen esleipenaren arteko koherentzia, besteak beste nazioarteko funts publikoetatik datozenak.**

I+G eta berrikuntza bultzatzeko Portugalgo aurrekontuaren zati handi bat Europako Egiturazko Funtsetatik eta Inbertsio Funtsetatik dator. COMPETE (2007-2013) eta COMPETE 2020 (2014-2020) esparru-programek ETE berritzaileen ehunekoa eragin zuzena izan zuten laguntza-programa nagusiak jasotzen dituzte.



Berrikuntza-politikaren xede nagusiekin bat etortzeari esker, **administrazioaren ahaleginen inpaktua maximizatu eta baliabide publikoen erabilera eraginkorra bermatu** ahal izan zen.

- **Berrikuntza enpresak nazioartekotzen laguntzeko palanka izan daiteke, baita epe laburrean ere.**

Euroaren krisiren eraginez barne-merkatuak jaistearen ondorioz, enpresek nazioartekotu egin behar izan zuten. Hori bat etorri zen Txinak Portugalgo enpresak jada lehiatzen ziren nazioarteko merkatuetan gero eta presio handiagoa egitearekin. Horren guztiaren ondorioz, Portugalgo enpresen eskaintza modernizatu egin behar izan zen, mundu mailan lehiakorra izan zedin.

Horri dagokionez, **digitalizazioari eta berrikuntzari** esker lortu zuten hori, eta **Portugalgo gobernuaren babes**a izan zuen. Horren ondorioz, ETE berritzaileen ehunekoa azkar areagotu zen, eta esportazioek ekarpen handiagoa egin zioten herrialdeko ekonomiari.

Nolanahi ere, ematen du **ibilbidea mugatua izan dezakeela**, ETE berritzaileen ehunekoa jaitsi egin delako enpresa-eskaintza hobetzeko premiazko beharrianak konpondu ondoren, eta Portugalen egitura ekonomikoan aurrerapen gutxi izategatik eta berrikuntzaren inpaktu xumeengatik ere.

- **Gobernuak helize hirukoitzarekin duen lankidetzak berrikuntza-politikak eraginkortasunez diseinatzen eta ezartzen laguntzen du.**

2010ean, gobernuak, lehenengoz, behetik gorako hurbilketa bat (bottom-up) egin zuen bere politikak diseinatzean eta abian jartzean, eta horretarako, hainbat stakeholderrekin lankidetzan aritu zen. Horri esker, **bizkortasuna eta azkartasuna** lortu zuen politikak martxan jartzean, eta **enpresen beharrianetara hobeto egokitu zen**, heldutasun-mailen arabera.

- **Heldutasun-maila desberdinetarako tresna egokiak diseinatzeak aukera ematen du enpresen beharrianetara hobeto erantzuteko.**

Tresnak enpresen beharrianetara beren gaitasunen arabera egokitzeak aukera ematen du berrikuntza-politikaren helburuak hobeto betetzeko.

Portugalgo enpresa-ehunaren gehiengoan dauden gaitasun eskasak kontuan izanda, **tresna errazak (hala nola bonuak)** sortzearen alde egin zen, lehen urratsa egin ahal izateko. Bonu horiek, gainera, enpresen nazioartekotzea sustatzeko bideratu ziren. Bestalde, kudeaketa-mailako gabeziak aintzat hartuta, horiek hobetzeko eta **berrikuntzan estrategikoki** pentsarazteko neurriak ere ezarri ziren (esate baterako, SIAC edo Portugal Social Innovation).



2. BIBLIOGRAFIA

2.1. Dokumentuen zerrenda

- COMPETE - Exekuzio-txostena 2013.
- Corado Simões, V., Mira Godinho, M., ta Sanchez-Martinez, M., RIO Country Report 2017: Portugal, EUR 29160 ES, Europar Batasunaren Argitalpenen Bulegoa, Luxemburg, 2018, ISBN 978-92- 79-81216-3, doi:10.2760/837712 , JRC111275.
- Euracti: "EBko Portugalgo presidentetzak "Eskubide Digitalen Gutuna" aurkeztuko du: <https://www.euractiv.com/section/digital/news/portugal-eu-presidency-to-present-charter-of-digital-rights/> (kontsulta-data: 2021eko urtarrilaren 11).
- Europako Batzordea, 2017. Eraldaketa digitalaren monitore. Herraldea: Portugal "Industria 4.0". Kontsulta-data: 2021eko urtarrilaren 11: https://ec.europa.eu/growth/tools-databases/dem/monitor/sites/default/files/DTM_Ind%C3%BAstria%204.pdf
- Europako Batzordea, 2019. Enpresa Txikien Elkartea - Harrialdearen profila 2019 - Portugal.
- Europako Batzordea (2021), Berrikuntzaren Adierazleen Europako Taula 2021. EBren Argitalpenen Bulegoa, Luxemburg. Hemen eskuragarri: <https://ec.europa.eu/docsroom/documents/46013/attachments/1/translations/en/renditions/native>
- Europako Batzordea (2020), Europar seihiilekoa 2020: egiturazko erreformen aurrerapenaren balorazioa, desoreka makroekonomikoen prebentzioa eta zuzenketa, eta 1176/2011 (EB) Erregulazioaren menpeko berrikuspen xehatuaren emaitzak. Portugalgo Txostena 2020.
- CE/OCDE (2020), STIP Compass Portugal Overview, hemen oinarrituta sortua: <https://stip.oecd.org/stip/interactive-dashboards/countries/Portugal>, 2020ko irailaren 24a.
- Portugalgo gobernuak, 2020. "Recovery and Resilience Plan": <https://www.portugal.gov.pt/download-ficheiros/ficheiro.aspx?v=%3d%3dBQAAAB%2bLCAAAAAAAAAABAAzNDazNgMAAfd%2fsQUAAAA%3d> (kontsulta-data: 2021eko urtarrilaren 11).
- Manuel Godinho eta Vítor Simões, ERAWATCH Country Reports 2012: Portugal.
- ELGA (2017). ELGAren txosten ekonomikoak - Portugal. Laburpena portugesez.
- ELGA (2019), Portugaleko Goi-Mailako Hezkuntza, Ikerketa eta Berrikuntzari buruzko ELGAren Txostena, OECD Publishing, Paris. <https://doi.org/10.1787/9789264308138-en>
- Portugal2020: "EBk argi berdea eman dio Portugalgo Sustapen Bankuari". 2020ko abuztuaren 5a. <https://www.portugal2020.pt/content/ce-da-luz-verde-ao-banco-portugues-de-fomento> (kontsulta-data: 2021eko urtarrilaren 12a).

2.2. Elkarrizketen zerrenda

Izena	Erakundea	Kargua	Data
Julián Flórez irak. dk.	Vicomtech CoLABetarako Nazioarteko Ebaluazio Batzordea	Zuzendari nagusia Ebaluatzailea	2021eko ekainaren 11
Jorge Portugal dk.	COTEC Portugal	Zuzendari nagusia	2020ko abenduaren 15a
José Carlos Caldeira	INESCTEC MANUFUTURE-EU ANI, Portugalgo Berrikuntza Agentzia Nazionala	Administratzailea Goi Mailako Taldeko kidea Presidente ohia	2019ko urriaren 17a



3. ERANSKINAK

3.1. Programa nagusien laburpena

Programaren izena	Laburpena
<p>SIFIDE Enpresek I+G arloan inbertsioak egiteko zerga-pizgarriak</p>	<p>Enpresetarako zerga-kredituen sistema; horri esker, enpresen zergak kendu daitezke I+G arloan inbertitzen duten bitartean. Arrakastatsua izan zenez, berriro egin zen 2011n, eta zenbait aldaketa egin ziren legedian; horri esker, are erakargarriagoa da enpresetarako.</p> <p>https://www.ani.pt/en/funding/fiscal-incentives/sifide/ https://www.oecd.org/sti/RDTax%20Country%20Profiles%20-%20PRT.pdf</p> <p>Zenbatekoak</p> <p>1997az geroztik, SIFIDEk 1.500 enpresa onuradun inguru ditu urtean, batez beste. 2019an, 2.356 eskaera aurkeztu eta 1.236 hautatu ziren. Hautatutako enpresetatik 917 ETEak edo mikroenpresak ziren. Aitortutako inbertsioen balioa, guztira, 1.206,6 M €-koa izan zen; eskaera bakoitzeko batez besteko inbertsioa, berriz, 512,1k €-koa. Eskatutako kreditu fiskalaren balioa, guztira, 539,2 M €-koa izan zen, eta eskaera bakoitzeko batez bestekoa, berriz, 228,9 k €-koa.</p> <p>SIFIDEk hauta ditzakeen I+G jarduerak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Produktu, prozesu edo zerbitzu berriak edo hobekuntza teknikoak garatzea. • Berrikuntza-elementu nabarmena behar duten jarduerak, eta ziurgabetasun zientifikoa eta/edo teknologikoa konpondu behar dutenak. <p>SIFIDEren zerga-arinketarako sistema enpresa guztietarako irekita dago, eta honela egituratzen da:</p> <ul style="list-style-type: none"> • "Oinarrizko tasa" – Aplikazio-urtean egindako gastuen % 32,5. • "Tasa gehigarria" – Gastu horren igoeraren % 50, aurreko 2 urteetako batezbestekoaren aldean, 1,5 M € arte. <p>Praktikan, laguntza horrek I+G arloko inbertsioaren % 82,5 arte berreskuratzea ekar dezake. Oraindik bi urte bete ez dituzten eta tasa gehigarria baliatu ez duten ETE-etarako, % 15eko gehikuntza aplikatzen zaio oinarrizko tasari.</p>
<p>Enpresen ikerketarako eta garapen teknologikorako pizgarrien plana (SI I&DT)</p>	<p>Helburu du I+G arloko enpresa-ahaleginak eta enpresen eta ezagutza-zentroen arteko loturak areagotzea, eta, horrela, enpresen teknologien, ezagutzen eta I+G arloko emaitzen hedapena, transferentzia eta erabilera azkartzea.</p> <p>Klusterren eta I+G zentroen I+G proiektu indibidualak eta lankidetzakoak finantzatzea. Hartzaille nagusiak enpresak, goi-mailako irakaskuntzako erakundeak, institutu zientifikoak eta garapen teknologikoko erakundeak, estatuko laborategiak, bitarteko erakundeak eta laguntza teknologikoko enpresak dira.</p> <p>https://iia.pt/si-idt/</p>
<p>ETE-en kualifikazio eta nazioartekotzerako pizgarrien plana (SI Qualification of SMEs)</p>	<p>"Enpresa Ereduaren Berrikuntza eta Berritzea eta Kualifikazio Estandarra" COMPETEren II. ardatzean jasota izanik, tresna horren xedea da Portugalgo enpresen esportazio-gaitasunak indartzea, segmentu lehiakorrenetan eta berezituenetan birkokatuz, eta produktibitatea sustatzea ETE-en kualifikazioaren bidez.</p> <p>Banaka nahiz lankidetzan egindako ETE-en berrikuntza-proiektuak finantzatzen dira. Pizgarriak ematea ETE-en nazioartekotzea sustatzeko eta kualifikazioa hobetzeko, hala nola bonuak edo "baleak". Horren adibide dira "Vale Inovação" (berrikuntzarako bonuak), "Vale Empreendedorismo" (ekintzailetzarako bonuak) eta "Vale Energia ou Meio Ambiente", ingurumen-kutsadura, jasangarritasuna eta/edo ingurumen-inpaktuen ebaluazioa landu nahi duten proiektuetarako. Hartzaille nagusiak enpresak, ETE-en arloko politikak dituzten erakunde publikoak, ekintzailetzarekin lotutako elkarteak eta jarduera-sektore horrekin lotutako beste eragile batzuk dira.</p> <p>https://www.iapmei.pt/PRODUTOS-E-SERVICOS/Incentivos-Financiamento/Sistemas-de-Incentivos/Incentivos-Portugal-2020/SI-Qualificacao-Individuais.aspx https://www.portaldosincentivos.pt/index.php/portugal-2020/vales-simplificados/vale-inovacao https://www.portaldosincentivos.pt/index.php/portugal-2020/vales-simplificados/vale-empreendedorismo https://www.ua.pt/pt/idad/sistema_de_incentivos_vale_energia_ou_ambiente</p>



Programaren izena	Laburpena
Berrikuntzarako pizgarrien sistema (SI Inovação)	<p>Helburua da eskala handiko inbertsioa sustatzea hazteko ahalmena duten arlo berrietan. Enpresetan berrikuntzak finantzatzeko da, ondasun, zerbitzu eta prozesu berriak ekoiziz, enpresek balio-katean aurrera egin dezaten. Gainera, nazioarteko merkatuetarako orientazioa indartzeko asmoa du, baita ekintzaitza kualifikatua eta hazkunde potentziala duten arlo berrietan egiturazko inbertsioak sustatzea ere.</p> <p>Hauei ematen dizkie pizgarriak:</p> <ul style="list-style-type: none">• Ondasun eta zerbitzu berriak edo gaur egungo ekoizpenean hobekuntza esanguratsuak dakartzaten proiektuak, ezagutzak transferituz eta aplikatuz.• Fabrikazio-, logistika- eta banaketa-prozesu edo -metodo hobetu berriak edo esanguratsuak ezartzeko proiektuak, baita antolakuntzakoak edo marketinekoak ere.• Ekoizpen-gaitasunak areagotzeko proiektuak, eduki teknologiko handiko jardueretan edo nazioarteko bilaketa dinamikoekin.• Enpresak eta jarduerak sortzea garapenaren lehenengo urteetan, baliabide kualifikatuekin edo hazkunde-dinamika handiko sektoreetan jarduerak garatzen dituztenekin, besteak beste emakumeen edo gazteen ekintzaitzatik eratorritakoak. <p>http://www.pofc.qren.pt/areas-do-competite/incentivos-as-empresas/inovacao</p>
SIAC (Ekintza Kolektiboek Laguntzeko Sistema)	<p>"V. Ardatzaren (Enpresak Garatzeko Sare eta Ekintza Kolektiboak)" tresna nagusia izanik, helburu du erakundeei laguntzea hainbat proiektu garatzen nazioartekotzearen, sustapenaren, kudeaketaren, marketinaren edo ekintzaitzaren arloetan. Elkarre publiko-privatuetarako da, eta irabazi-asmorik gabeko erakunde publikoak eta pribatuak ditu hartzaile, esate baterako enpresen elkarreak eta/edo zientziaren eta teknologiaren arloko erakundeak.</p> <p>Sistemaren pizgarriak hauetarako dira:</p> <ul style="list-style-type: none">• Ekonomia nazionalerako garrantzitsuak diren sektore, eskualde eta jarduerak nazioartean sustatzeko, zabaltzeko eta irudia ezartzeko jarduerak.• Informazio prospektiboa eta estrategikoa, behaketa eta zaintza, besteak beste enpresetarako diagnostiko- eta ebaluazio-tresnak.• Enpresei eta enpresa-espirtuari laguntzeko sareak sortzea.• Lehiakortasunaren faktore kritikoei buruzko eta ekintzaitzarako kontzientzia sortzea.• Merkatu berriak, teknologiak eta berrikuntza-aukerak aztertzea.• Elkarre dinamizatze, koordinatze eta kudeatzeko jarduerak, Eraginkortasun Kolektiboko Estrategien esparruan. <p>http://www.pofc.qren.pt/resourcesuser/legislacao/sa_accoescolectivas.pdf</p>
SAFPRI - Berrikuntza finantzateko eta arriskuak banatzeko laguntza-sistema	<p>III. ardatzeko ("Berrikuntzaren Arriskua Finantzatzea eta Banatzea") programaren esparruan, ETE-etarako finantzaketa-baldintza hobek emango dituzten finantzaketa-tresnak zabaltzea bultzatu nahi da, helburu hauekin:</p> <ul style="list-style-type: none">• ETE-ei laguntzeko arrisku-kapitalaren esku-hartzea sustatzea, haien bizi-zikloaren lehenengo etapak eta proiektu berritzaileetan inbertitzea babestuz.• Elkar bermatzeko sistema indartzea eta horien esku-hartzea arriskua edo izaera berritzailea izateagatik bankuen finantzaketa lortzeko zailtasun handienak dituzten enpresa eta proiektuetara zabaltzea.• Kreditu-lerroak babestea, ETEek finantzaketa errazago lortzeko.• Tresna berrien erabilera sustatzea, zehazki business angles eta arrisku-kapitaleko funtsen jarduerak, enpresa txikien proiektuen finantzaketa bultzatzeko.• ETE-en finantzaketa eta berrikuntza babestea, kapitalaren eta zorraren ikuspegi integratutik.• Ekintzaitza sustatzea, arrisku handieneko ekimenetan beharrezkoak diren kapitala eta kudeaketa-gaitasunak bermatuz. <p>http://www.pofc.qren.pt/areas-do-competite/financiamento-e-partilha-de-risco https://www.pmeinvestimentos.pt/wp-content/uploads/2017/02/Alteracao_ao_Regulamento_do_SAFPRI_-_aprovada_em_11_de_maiode_2010-.pdf</p>



Programaren izena	Laburpena
FINOVA (Berrikuntzaren Finantzaketari Laguntzeko Funtza)	<p>Tresna hori 2008an sortu zen SAFPRIn ezarritako helburuak erdiesteko. Bitarteko tresna da, eta xede hauek ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Arrisku-kapitalaren zeregina indartzea ETE-<i>ei</i> laguntzeko. • Elkar bermatzeko sistema indartzea eta enpresa eta proiektu berritzaileetarako laguntzak areagotzea sustatzea. • Finantza-sistemarekin kontratatutako kreditu-lerroei eustea. • Tresna berriak erabil daitezzen babestea, hala nola zor- eta kapital-tresna bihurtgarriak eta titulazioa. • Enpresa-espirtua sustatzea. <p>Laguntzeko finantza-bitartekoak hauek dira: arrisku-kapitaleko funtsak, inbertsio-funts bereziak eta arrisku-kapitala sindikatuzko funtsak. Funtz horien hartzaileak hainbat enpresaren finantzaketa eta berrikuntza dira, hala nola hauena: IAPMEI (Konpetentzia eta Berrikuntza Agentzia), AICEP (Portugalgo Inbertsio eta Kanpo Merkataritzako Agentzia), Turismo de Portugal (Turismo Agentzia), CCDR LVT (Lisboa eta Vale do Tejoko Eskualdeko Koordinazio eta Garapen Batzordea), CCDR Algarve (Algarveko Koordinazio eta Garapen Batzordea) eta PME Investimentos.</p> <p>https://dre.pt/web/guest/legislacao-consolidada/-/lc/67025093/202006142102/diploma?LegislacaoConsolidada_WAR_drefrontofficeportlet_rp=indice</p> <p>https://www.pmeinvestimentos.pt/en/funds-under-management/finova/presentation/</p>
Kontagailu Publikoen Berme Funtza (Fundo de Contra Garantia Mútuo – FCGM)	<p>Portugalgo enpresetarako bitarteko laguntza-sistema bat da. Kreditua errazago eskuratzeko finantza-bermeak jaulkiz funtzionatzen du, enpresen beharrian eta negozio-zikloetarako baldintza egokiagoetan. Esparru horretan, FCGMk estatuak egindako kapital-entreguen hartzaile gisa jarduten du, eta sistemak ondo funtzionatzen duela bermatzen du. FCGMk SPGMren ("Sociedade de Investimento") esparruan lan egiten du; hain zuzen, finantza-tresna ba da, eta kreditu-lerroen azken hartzaileak ETEak eta beste pertsona juridiko edo fisiko batzuk dira, hala nola ikasleak eta nekazariak.</p> <p>https://www.spgm.pt/pt/pt/institucional/fundo-de-contragarantia-mutuo/apresentacao/</p>
Portugal Ventures	<p>2012an sortu zen, arrisku-kapitaleko hiru estatu-erakundeek bat egitearen ondorioz: (AICEP Capital Global, InovCapital eta Turismo Capital. Gaur egun, Portugal Ventures Banco Português de Fomento estatuko bankuaren parte da. Bere jarduerak nazioko enpresa-ekosistemaren finantzaketa eta hazkundera sustatzeari lotuta daude, "zorroko gure enpresa bakoitzaren hazkunderako, lehiakortasunerako eta nazioartekotze-potentzialerako estrategia bereziak diseinatuz".</p> <p>http://www.portugalventures.pt/en/about-us.html?hrq=2</p>
Interface programa	<p>Berrikuntzaren Agentzia Nazionalaren (ANI) esparruan, eta Portugal 2020 esparruaren funtsen babesarekin, INTERFACE Portugalgo industrien azpiegiturak garatzeko programa gisa jarri zen martxan. Lankidetzeta-laborategiei (CoLAB), Interface Teknologikoko Zentroei (CIT) eta Lehiakortasun Klusterrei finantza-laguntza ematean datza.</p> <p>Programaren helburu nagusia da aurreko erakundeek eta enpresek (bereziki, ETE-ek) I+G eta berrikuntzako jardueretan dituzten gaitasunak hobetzea. Gainera, politika horrek hauek erdietsi nahi ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ezagutzan eta berrikuntzan oinarritutako hazkundera sustatzea. • Balio erantsi handiagoa duten ondasun eta zerbitzu merkaturagarrien ekoizpen-ahalmena handitzea, bereziki ETE-etan. • Zientziaren eta industriaren artean lankidetzeta handiagoa sustatzea. • I+G arloko inbertsio pribatua sendotzea. • Enplegu kualifikatua sortzea sustatzea. <p>CoLAB, CIT eta Lehiakortasun Klusterretarako hautagaiei bakarrik ematen zaie laguntza, urte anitzeko finantzaketa-planak esleitzen. Plan horiei esker, onuradunek finantza-egonkortasunaren mailak areagotu eta epe ertain-luzera begirako estrategiak zehaztu ahal izango dituzte. Funtz horiek zentroen jarduerara ez-ekonomikoak eta aurre-lehiakorrek garatzeko soilik erabiliko dira, eta, beraz, ez dira helburu komertzialetara bideratuko.</p> <p>http://www.programainterface.pt/pt</p>



Programaren izena	Laburpena
Indústria 4.0	<p>Industria 4.0 estrategia industrietan garapen digitala sustatzeko da, Portugalgo ekonomiaren sektore estrategiko gakoetan gaitasunak, metodo berriak eta aplikazio digitalak garatzen lagunduz. ETE-etarako da, eta hiru ardatz ditu: berrikuntza, digitalizazioa eta prestakuntza.</p> <p>Estrategiaren neurriak sei zutabe estrategikoetan zatitzen dira:</p> <ul style="list-style-type: none">• Giza kapitalaren kualifikazioa.• Lankidetzaren teknologikoa.• <i>Start-up</i> i4.0;• Inbertsioaren finantzaketa eta pizgarriak.• nazioartekotzea, eta arauak eta erregulazioa. <p>Ardatz horien artean, 60 enpresa eta konpainiatik gora bildu dira, lan-merkatuko ekonomiaren digitalizazioak gaur egun dituen erronka nagusiak zein diren eta horiek nola landu daitezkeen zehazteko. Besteak beste, hainbat ekitaldi, lantalde eta proiektu jasotzen ditu helburu hori lortzeko.</p> <p>Halaber, estrategiak arlo hori ardatz duten sareak sortzea sustatzen du, eta, horrez gain, industria nazionala modernizatzen eta garatzen laguntzen du.</p> <p>2.260 M € erabiltzen dira Industria 4.0 kontzeptuarekin lotutako teknologia eta azpiegiturak ezartzeko. Hainbat finantza-tresna baliatuko dira (maileguak, kenkari fiskalak, proposamenen edo bonuen deialdiak).</p> <p>https://ec.europa.eu/growth/tools-databases/dem/monitor/sites/default/files/DTM_Ind%C3%BAstria%204.pdf</p> <p>https://cotecportugal.pt/wp-content/uploads/2020/09/COTEC_BrochuraMadrid2019_V07.pdf</p>



Berrikuntzaren Euskal Agentzia
Agencia Vasca de la Innovación

Bizkaiko Zientzia eta Teknologia Parkea
Laida Bidea, 203 | 48170 Zamudio

T. +34 944 209 488 | innobasque@innobasque.eus

www.innobasque.eus